

udala

Euskadiko Udalen Elkartearen
BULETIN MONOGRAFIKOA

171. zk. · 2022ko Azaroa

Udal Finantzaketa
Udalen partaidetza
zerga itunduetan
2022-2023



URTE 1984 2022

EUDEL



URTE | 1982-2022

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

www.eudel.eus

Gure buletina harpidetu: <https://noticias.eudel.eus/eu/>

udala

Euskadiko Udalen Elkartearen
BULETIN MONOGRAFIKOA

Azalako argazkia: **Agurain**

Ercilla 13 | 48009 BILBAO
Tel.: 94 423 15 00
e-mail: eudel@eudel.eus



Euskadiko Udalen ordezkariak

Herri-dirubideen Euskal Kontseilua

Gorka Urtaran, VITORIA-GASTEIZko alkatea (EUDELeke elkarteburua)

Nagore Alkorta, AZPEITIKo alkatea (EUDELeke elkarteburuordea)

Ángela Eguía, GORDEXOLAKo alkatea (EUDELeke Batzorde Eragileko kidea)

Finantzen Lurralde Kontseiluak

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseilua

Joseba Koldo Garitagoitia, ALEGRIA-DULANTZIKo alkatea

Txerra Molinuevo, AMURRIOko alkatea

Juan Muñoz, ARMIÑONGO alkatea

Laura Pérez, BASTIDAKo alkatea

Rosa M^a Ibarrondo, HARANAKo alkatea

Iñaki Gurtubai, VITORIA-GASTEIZko zinegotzia

Unai Gutiérrez, ZUIAKo alkatea

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua

Marta Ajuria, BILBOKo zinegotzia

Ane Legarretaetxebarria, FRUIZko alkatea

Iñigo Gaztelu, LARRABETZUKo alkatea

Elixabete Uribarri, PLENTZIAko alkatea

Mikel Torres, PORTUGALETEko alkatea

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseilua

Ane Lukene Beitia, ELGOIBARKo alkatea

Kerman Orbegozo, DONOSTIAko zinegotzia

Gurutze Etxezabal, OREXAKo alkatea

Izaro Elorza, OÑATIKo alkatea

Jon Iraola, EIBARKo alkatea

171zk. Aurkibidea · 2022ko azaroa

Herri-dirubideen Euskal Kontseilua

04 —

Foru Aldundien zerga itunduen bilketa..... 04

- Diru-bilketaren 2022rako aurreikuspenak (aurrelikidazioa).
- 2023rako aurrekontu-aurreikuspena.
- Euskal Foru Ogasunen zerga itunduen bilketaren bilakaera (2006 – 2023).
- Egokitzapenerako Funtz Orokorraren 2023ko ekitaldirako behin-behineko zenbatekoa zehaztea.
- 2023ko ekitaldirako koefiziente horizontalak zehaztea.

2023ko ekitaldirako erakundeen arteko akordioa, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa..... 09**Finantzen Lurralde kontseiluak**

10 —

Udal finantzaketarako foru-funtsak..... 10**Arabako toki-erakundeak**..... 11

- 2022ko aurrelikidazioa.
- 2023ko aurrekontua.
- Aurreko ekitaldietako likidazioak.
- Toki-erakundeen partaidetza egonkortzeko funtsa (TEPEF).
- Obra eta zerbitzuen foru-plana eta auzo harremanak sustatzeko eta obra txikiak egiteko laguntzen programa.

Bizkaiko udalak..... 13

- 2022ko aurrelikidazioa.
- 2023ko aurrekontua.

Gipuzkoako udalak..... 15

- 2022ko aurrelikidazioa.
- 2023ko aurrekontua.

Udal finantzaketarako foru-funtsak, euro/biztanletan

16 —

Eranskinak

18 —

- TEFFF: 2022ko konturako ekarpenak / aurrelikidazioa eta konturako ekarpenen 2023rako aurreikuspena, udalen arabera.
- UDALKUTXA: 2022ko konturako ekarpenak / aurrelikidazioa eta konturako ekarpenen 2023rako aurreikuspena, udalen arabera.
- UFFF: 2022ko konturako ekarpenak / aurrelikidazioa eta konturako ekarpenen 2023rako aurreikuspena, udalen arabera.

HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

Foru Aldundien zerga itunduen bilketa

Aurreko urriaren 14ko Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan, honako hauek onetsi ziren, besteak beste: 2022ko ekitaldiari dagozkion zerga itunduen bilketaren aurreikuspena eta 2023rako aurrekontu aurreikuspena, koefiziente horizontalen zehaztapena eta Foru Aldundien 2023rako ekarpenena, baita 2023rako Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa ere.

2022rako bilketaren aurreikuspena (aurrelikidazioa)

Oro har, zerga itunduen diru-bilketa aurreikuspena baino % 5,03 handiagoa izatea aurreikusten da. Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak honako kopuru hauek onetsi zituen, zerga itunduen diru-bilketaren itxierako aurreikuspenari dagokionez. (1. taula)

1. TAULA

	2022ko aurrekontua €	2022ko bilketaren aurreikuspena €	Aldea €	%
Araba	2.547.062.112	2.703.832.507	156.770.395	% 6,15
Bizkaia	8.386.893.473	8.766.977.168	380.083.695	% 4,53
Gipuzkoa	5.356.484.415	5.638.473.325	281.988.910	% 5,26
EAE guztira	16.290.440.000	17.109.283.000	818.843.000	% 5,03

Diru-bilketa hasieran aurreikusitakoa baino % 6,15 handiagoa izatea aurreikusten da Araban; % 4,53% handiagoa, Bizkaian, eta % 5,26 handiagoa, Gipuzkoan.

2023rako aurrekontu-aurreikuspena

Era berean, 2023rako zerga itunduen diru-bilketaren aurreikuspenak erabaki ziren. Hurrengo taulan agertzen dira 2023rako aurreikusitako diru-bilketak, 2022ko aurrekontuarekin alderatuta. (2. taula)

2023rako, **% 10,94ko** igoera orokorra aurreikusten da diru-bilketan, 2022ko aurrekontuarekin alderatuta. Lurraldeka, honela banatzen da aurreikusitako igoera hori: % 11,43 Araban, % 10,84 Bizkaian eta % 10,87 Gipuzkoan.


2. TAULA

	2022ko aurrekontua €	2023rako aurreikuspena €	Aldea €	%
Araba	2.547.062.112	2.838.291.840	291.229.728	% 11,43
Bizkaia	8.386.893.473	9.295.933.632	909.040.159	% 10,84
Gipuzkoa	5.356.484.415	5.938.684.528	582.200.113	% 10,87
EAE guztira	16.290.440.000	18.072.910.000	1.728.470.000	% 10,94

Diru-bilketaren 2023rako aurreikuspena 18.072,9 milioi eurokoa da. 2022ko hasierako aurreikuspena baino % 10,94 handiagoa.

Euskal Foru Ogasunen zerga itunduen **bilketen bilakaera (2006-2023)**

1. GRAFIKOA: milioi euro / zerga itunduen diru-bilketa



Grafikoan ikus daiteke 2006tik 2023ra bitartean zerga itunduetan izandako diru-bilketaren bilakaera. Nabarmendu beharra dago 2022ko datua aurrelikidazioari dagokiola eta 2023koa diru-bilketaren aurrekontuari; gainerako ekitaldiak bat datoz likidazioarekin.

2008. eta 2009. urteetan, krisi ekonomikoaren ondorioz, aldi horretako kopururik apalenak bildu ziren. Zehatz esateko, **2009. urtean** izan zen **bilketarik** txikiena: **10.792 milioi euro**. Bilketaren eragin negatibo horrek isla izan zuen Udal Finantzaketarako Foru

Funtsen murrizketan, arrisku partekatuaren printzipioa aplikatzearen ondorioz.

2013ko ekitalditik aurrera, susperraldi bat hasi zen bilketaren pixkanakako igoera jarraituari esker, eta igoera hori are nabarmenagoa izan zen 2017tik aurrera, 2019ra arte. 2020ko ekitaldian, jaitsiera handia izan zen bilketan, COVID-19ak eragindako pandemiaren eragin ekonomikoagatik. Onartutako datuen arabera, **2022. eta 2023. urteetarako 17.109 eta 18.073 milioi euroko bilketa aurreikusten da, hurrenez hurren.**

Egokitzapenerako Funts Orokorra 2023

Foru Aldundiek ekarpen koefiziente horizontalen arabera egiten dizkiote ekarpenak Eusko Jaurlaritzari, ez bildutakoarekiko modu zuzenki proportzionalan. Lurralde bakoitzaren ekarpenaren koefizientearen eta bildutakoaren koefizientearen arteko aldeak lurralde disfuntzioak eragiten ditu finantzaketan.

Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbateko estimatua **84,7 milioi eurokoa** da 2023rako, eta hauek dira lurralde bakoitzak funtsari egin beharreko ekarpenak: (3. taula)

3. TAULA

EFOari egin beharreko ekarpenak

EFOrako ekarpenak	2023rako aurreikuspena €
Eusko Jaurlaritza (% 70,81)	59.996.562
Aldundiak eta udalak (% 29,19)	24.732.377
Araba	3.969.547
Bizkaia	12.499.743
Gipuzkoa	8.263.087
GUZTIRA	84.728.839

Egokitzapenerako Funts Orokorrak aukera ematen du disfuntzio horiek arintzeko, eta bermatu egiten du Lurralde Historiko bakoitzak Euskadiko bilketa osoan duen partaidetza ekarpenaren koefiziente horizontalaren % 99rainokoa izatea, Funtsari egindako ekarpena kenduta.

Honela banatuko da Egokitzapenerako Funts Orokorra lurraldez lurralde: (4. taula)

4. TAULA

EFOtik kobratzekoak, guztira

EFOren banaketa	2023ko aurreikuspena €
Araba	37.372.741
Bizkaia	-
Gipuzkoa	47.356.198
GUZTIRA	84.728.839

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan erabaki zen Egokitzapenerako Funts Orokorraren 2023rako zenbatekoaren aurreikuspena 84,7 milioi euroan finkatzea, lurraldeka honela banatuta: Araba (37,4 milioi euro) eta Gipuzkoa (47,3 milioi euro).

4/2021 Legeak 2022-2026 aldirako onartutako metodologiari jarraituta, Egokitzapenerako Funts Orokorra bi tarte bereizitan egituratuko da, eta horien

baterako mugak ez du gaindituko lege horren 4. artikuluan banatu beharreko baliabide gisa definitutako baliabideen % 1,45.

Datu horiekin, Arabako eta Gipuzkoako aldundien bilketa koefizienteak haien koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko dira, eta, hala, ez da beharrezkoa izango Egokitzapenerako Funts Orokorraren bigarren tarte aktibatzea.

Ekarpen koefiziente horizontalak

Foru Aldundiek erakunde erkideen kargei eta kupoa ezartzeko metodologiatik eratorritako obligazioei egin beharreko ekarpena ekarpen koefiziente horizontalen arabera egiten da. Koefiziente horiek ez dira aldatzen ekitaldian zehar, eta ekitaldiko ekarpenak likidatu arte aplikatzen dira, likidazioan barne.

Honako ekarpen koefiziente horizontal hauek onartu dira 2023ko ekitaldirako:

2023rako Ekarpen koefiziente horizontala	
Araba	% 16,05
Bizkaia	% 50,54
Gipuzkoa	% 33,41

2023ko ekitaldirako erakundeen arteko akordioa, aurrekontu egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa

Europar Batzordeak 2021eko ekainaren 2an iragarri zuen 2022ra luzatuko zuela Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes klausula orokorra, administrazio publikoei behar adinako malgutasuna ematearren Covid-19aren pandemiari aurre egiteko, eta, iragarpen haren ondoren, Estatuko Gobernuak erabaki zuen bertan behera uztea, 2020 eta 2021. urteetan egin bezalaxe, ezohiko moduan, 2022rako zerga-arauak.

2022ko martxoaren 2an, Europar Batzordeak 2023rako aurrekontu politikaren esparruko orientabide orokorrak aurkeztu zituen, Errusiak Ukraina inbaditu izanak sortutako testuinguruan, kontuan hartuta horrek hazkunde igurikapenetan izango duen eragina, eta azpimarratu zuen egoeraren bilakaera bizkorrari erantzutekomoduan egokitubeharkozirelaorientabideak. 2022ko maiatzaren 23an, Europar Batzordeak proposatu zuen 2023ra zabaltzea Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes klausula orokorra, eta halaxe onartu da 2022ko uztailaren 26ko Ministro Kontseiluaren erabakiz, baita zerga-arauak bertan behera uztea ere, aurrez egin bezala 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietan.

Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko akordio bidez, 2022ko irailaren 8an 2023rako aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak adostu dira, eta defizit eta zor publikoko helburuak finkatu dira erakunde erkideentzat, baita baterako defizit helburu bat ere foru-aldundiei dagokienez.

Hori guztia kontuan hartuta, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak honako erabaki hauek hartu zituen:

Onartzea foru-aldundien 2023rako aurrekontu egonkortasunaren helburua:

Finantzaketa ahalmena (+) premia (-),
SEC-2010 (EA Eren BPGren ehunekoa)

2023
-0,1

Foru-aldundien baterako defizit helburuaren lurraldekako banaketa 2023ko ekitaldirako onartutako ekarpen koefiziente horizontalen arabera kalkulatzea.

Foru-aldundien epe luzerako zorpetzea bat etortzea ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit helburuarekin.

2022ko uztailaren 26ko Ministro Kontseiluaren erabakiz zerga arauak bertan behera gelditu ondoren, defizit helburu adostu hori hartuko da 2023ko ekitaldirako erreferentziatzeko tasa gisa.

FINANTZEN LURRALDE-KONTSEILUAK

Udal finantzaketarako foru-funtsak

Lurralde bakoitzeko finantza-kontseiluen bileretan zehaztu da udalek zer partaidetza izango duten zerga itunduen diru-bilketaren aurreikuspenean Udal Finantzaketarako Foru Funtsak deritzenetan: **Udalkutxan**, Bizkaian, Udal Finantzaketarako Foru Funtsean (**UFFF**) Gipuzkoan, eta Arabako Toki Erakundearen Finantzaketarako Foru Funtsean (**TEFFF**).

Hiru lurraldeetako finantzen lurralde-kontseiluetan bildutako informazioaren arabera, honako hau da Udal Finantzaketarako Foru Funtsean **likidazio aurreikuspena, 2022rako**: (5. taula)

5. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2022ko aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Araba-TEFFF	252.236.798	260.358.868	8.122.070	% 3,22
Bizkaia-Udalkutxa	937.425.153	956.029.819	18.604.666	% 1,98
Gipuzkoa-UFFF	568.306.505	586.732.547	18.426.042	% 3,24
GUZTIRA	1.757.968.456	1.803.121.234	45.152.778	% 2,57

Foru-funtsean aurrelikidazioa 1.803,1 milioi eurokoa da hiru lurraldeetarako; hau da, hasieran aurreikusitako konturako ekarpenak baino % 2,57 handiagoa.

Aurrelikidazioaren datuek ez dute eraginik ekitaldiko konturako ekarpenetan, 2023ko otsaileko likidazioaren zain egon behar delako; baina datu horiek ezagutzea garrantzi handikoa da aurrekontuak hobeto kudeatzeko.

Hau da Udal Finantzaketarako Foru Funtsean **2023rako aurrekontu aurreikuspena**: (6. taula)

6. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2023ko aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Araba-TEFFF	252.236.798	263.638.607	11.401.809	% 4,52
Bizkaia-Udalkutxa	937.425.153	1.000.961.179	63.536.026	% 6,78
Gipuzkoa-UFFF	568.306.505	609.389.595	41.083.090	% 7,23
GUZTIRA	1.757.968.456	1.873.989.381	116.020.925	% 6,60

2023ko Foru-funtsetarako aurreikusitako 1.874 milioi euro horiek aurreko ekitaldiko aurrekontuarekiko % 6,60ko iguera adierazten dute, eta 2022ko aurrelikidazioarekiko % 3,93ko iguera.

Arabako toki erakundeak

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluak urriaren 18an egindako bilkuran, TEFFFaren 2022ko aurrelikidazioaren eta 2023rako aurrekontu aurreikuspenaren berri eman zen.

2022ko aurrelikidazioa

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, 2022ko likidazioaren aurreikuspena **260,4 milioi eurokoa da**; hau da, hasierako aurrekontua baino **% 3,22 handiagoa**. (7. taula)

7. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2022ko aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Araba-TEFFF	252.236.798	260.358.868	8.122.070	% 3,22

2023ko otsailean berretsiz gero 2022rako itxierako aurreikuspenen datuak, zenbatekoa 260,4 milioi eurokoa izango da; hau da, 2022an kontura emandako zenbatekoa baino % 3,22 handiagoa.

2023ko aurrekontua

TEFFFaren 2023rako aurrekontu-aurreikuspena **263,6 milioi eurokoa da**; hau da, 2022rako hasieran aurreikusitakoa baino **% 4,52 handiagoa**. (8. taula)

8. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2023ko aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Araba-TEFFF	252.236.798	263.638.607	11.401.809	% 4,52

TEFFFaren aurrekontu-aurreikuspena 263,6 milioi eurokoa da; horrek % 4,52ko igoera adierazten du aurreko ekitaldiko aurrekontuari buruz, eta % 1,26ko igoera, 2022ko aurrelikidazioarekiko.

Aurreko ekitaldietako likidazioak

2021a baino lehenagoko ekitaldietako TEFFFaren likidazioetatik **saldo positiboa** jaso dute toki-erakundeek. 2022ko ekitaldian, **29,8 milioi euro** gehigarri jaso dituzte erakundeek, 2021eko ekitaldiko **likidazio positibotik**, eta 10,9 milioi euro, EAOetan 2023rako aurreikusitako zuzkidura osagarriaren banaketatik (684/2021 ED)

Toki-erakundeen partaidetza egonkortzeko funtsa (TEPEF)

TEFFFaren 2016ko likidazio positiboa TEPEFera aplikatzearen ondorioz, 2017ko urtarrilaren 1ean kitatuta gelditu zen toki erakundeen zorra, Vitoria-Gasteizko Udalarena izan ezik, zeinak baitzuen 6,9 milioi euroko saldoa 2020ko urtarrilaren 1ean.

1/2021 Foru Arauak bertan behera utzi zuen TEPEFaren konpentsazioa 2020 eta 2021eko ekitaldietan. Hala ere, aurreikuspena da 2022ko ekitaldian kitatzea Vitoria-Gasteizko Udalaren 6.860.461,92 euroko zorra.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta auzo harremanak sustatzeko eta obra txikiak egiteko laguntzen programa

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren likidazioa 18.461.571,06 eurokoa izan da 2022ko ekitaldian, aurrekontuan zehaztutakoa baino 1.158.230,06 € gehiagokoa (17.303.341 €-koa zen aurrekontua).

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2023rako aurreikuspena 18.461.571,06 €-koa da.

Auzo Harremanei eta Obra Txikiei dagokienez, 2023rako aurreikuspena 2.490.846,89 €-koa da. Hau da, 2022ko aurrekontua baino 152.557,89 € gehiagokoa.

Bizkaiko Udalak

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak urriaren 20an egindako bilkuran, Udalkutxaren 2022ko aurrelikidazioaren eta 2023rako aurrekontu aurreikuspenaren berri eman zen.

2022ko aurrelikidazioa

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, 2022ko likidazioaren aurreikuspena **956 milioi eurokoa** da; hau da, hasierako aurrekontua baino **% 1,98 handiagoa**. (9. taula)

9. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2022ko aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Bizkaia-Udalkutxa	937.425.153	956.029.819	18.604.666	% 1,98

2023ko otsailean berretsiz gero 2022rako itxierako aurreikuspenen datuak, zenbatekoa 956 milioi eurokoa izango da; hau da, 2022an kontura emandako zenbatekoa baino % 1,98 handiagoa.

2023ko aurrekontua

Udalkutxaren 2023rako aurrekontu aurreikuspena **1.001 milioi eurokoa** da; hau da, 2022rako hasieran aurreikusitakoa baino **% 6,78 handiagoa**. (10. taula)

10. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2023ko aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Bizkaia-Udalkutxa	937.425.153	1.000.961.179	63.536.026	% 6,78

Udalkutxaren 2022rako aurrekontu aurreikuspena 1.001 milioi eurokoa da; alegia, aurrekontua baino % 6,78 handiagoa eta 2022ko aurrelikidazioa baino % 4,70 handiagoa.

Lurralde Historikoko udalek 2023an Gizarte Zerbitzuen Funtsetik ere 9,4 milioi euro jasotzea aurreikusita dago.

Aurreko ekitaldietako likidazioak

2021eko ekitaldiko likidazioa negatiboa izan zen, 46 milioi eurokoa. Ildo horretan, 2020ko urrian egindako Finantzen Lurralde Kontseiluak erabaki zuen itzulketa 2022ko eta 2023ko ekitaldietara atzeratzea, urtero % 50ean, eta 2021. urteko gabealdia izatea. Udalak, beraz, 2022ko ekitaldi honetan, 2022ko urtarriletik aurrera eta 2023ko abenduan amaitutako hileko berdinetan geroratutako zorrari dagozkion zenbatekoak itzultzen hasi dira. Salbuespen izango

dira 2021ean zorraren zatikapenen zenbateko osoa edo zati bat aldeztu aurretik amortizatzea erabaki duten udalak, diruzaintzako gerakina finantzaketa-baliabide gisa erabiliz.

Halaber, Bizkaiko udalerriek 2022ko ekitaldian 138,8 milioi euro gehiago jaso dituzte 2021eko ekitalditik. Kopuru horretatik, 80,8 milioi euro Udalkutxaren likidazio positiboari dagozkio, eta 58 milioi euro, berriz, 2021eko Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako zuzkidura gehigarriaren banaketari (684/2021 ED).

Gipuzkoako Udalak

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluak urriaren 17an egindako bilkuran, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren (UFFF) 2022ko aurrelikidazioaren eta 2023rako aurrekontu aurreikuspenaren berri eman zen.

2022ko aurrelikidazioa

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluaren datuen arabera, likidazioaren aurreikuspena **586,7 milioi eurokoa da**, hasierako aurrekontua baino **% 3,24 handiagoa**. (11. taula)

11. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2022ko aurrelikidazioa € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Gipuzkoa-UFFF	568.306.505	586.732.547	18.426.042	% 3,24

2022rako itxierako aurreikuspenen datuak berretsiz gero, zenbatekoa 586,7 milioi eurokoa izango da; hau da, % 3,24 igoko da 2022an kontura emandakoarekin alderatuta.

2023ko aurrekontua

UFFFaren 2023rako aurrekontu aurreikuspena **609,4 milioi eurokoa da**; hau da, 2022rako hasieran aurreikusitako aurrekontua baino **% 7,23 handiagoa**. (12. taula)

12. TAULA

	2022ko aurrekontua € (1)	2023ko aurrekontua € (2)	Aldea € (2)-(1)	%(2)/(1)
Gipuzkoa-UFFF	568.306.505	609.389.595	41.083.090	% 7,23

UFFFaren 2023rako aurrekontu aurreikuspena 609,4 milioi eurokoa da; hau da, aurrekontuko zenbatekoa baino % 7,23 handiagoa, eta 2022ko aurrelikidaziokoa baino % 3,86 handiagoa.

Aurreko ekitaldietako likidazioak

Gipuzkoako udalerriek 2022ko ekitaldian jaso dute 109,3 milioi euro gehiago, guztira. 2021eko ekitaldiko zenbateko horretatik, 84,1 milioi euro. UFFFren likidazio

positiboarekin bat datoz, eta 25,2 milioi euro, zuzkidura gehigarriaren banaketarekin Estatuko Aurrekontu Orokorretan 2021erako aurreikusia (684/2021 ED).

Udal-finantzaketarako foru-funtsak (€/biztanleko)

Grafiko honetako datuak interpretatzeko, honako ohar hauek kontuan hartu behar dira:

- (1) **Foru-funtsen likidazioetatik eratorritako datuak** dira, eta, beraz, ez dira kontuan izaten lurralde bakoitzean likidazio negatiboengatik dauden itzultzeko akordioak.
- (2) **Biztanleriaren iturria: INE.** Biztanleriaren zifrak dagokion ekitaldiko urtarrilaren 1eko zifra ofizialak dira. 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako 2021eko ekitaldiko urtarrilaren 1eko zifra ofizialak hartu dira.
- (3) Gipuzkoako 2011ko likidazioan, hiru lurraldeetako 2012 eta 2013koetan, Bizkaiko 2014koetan eta Arabako 2015 eta 2016koetan sartuta daude **berreskuratutako opor fiskalak**. Era berean, 2013ko likidazioan sartuta dago Eusko Jaurlaritzak balantzeak eguneratetik eratorritako diru-bilketagatik **konpentsazio gisa Gipuzkoari (7,8 milioi euro) eta Arabari (2,2 milioi euro)** ordaindutakoa.
- (4) 2017ko likidazioetan sartuta daude Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak **Lurralde Historikoentzat adostutako konpentsazioen** ondoriozko kopuruak, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartutako erabakien eredian sartzeak Euskadiko

erakundeetan kasuan-kasuan izandako eragina neutralizatzeko.

- (5) 2018ko ekitaldian sartu da Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiaren artean **Arabari (1.613.112 euro) eta Gipuzkoari (4.041.029 euro)** ordaintzen dioten **aparteko konpentsazioa**.
- (6) Lurralde bakoitzak baliabideen **ehuneko jakin bat** bideratzen du udal finantzaketarako:

Hauak dira 2021era arte:


- **TEFFF % 52,3 eta % 52,8 da 2018tik aurrera** (gainerako % 3,7a Obra eta Zerbitzuen Foru Plana da, eta gainerako % 0,5a obra txikien eta bidezidorren plana, eta ez dira kontuan hartzen €/biztanleko ratioa kalkulatzeko).
- **Udalkutxa % 56 da.**
- **Gipuzkoako UFFF % 58 da** (2011n % 57, 2012an % 57,5 eta 2013tik aurrera % 58).

Hauak dira 2022tik aurrera:

- **TEFFF % 35,96 da; Udalkutxa, % 39,29, eta Gipuzkoako UFFF % 39,96.**

Foru Funtzen likidazioa

2. GRAFIKOA: euro/biztanle



	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 (Aurrelik.)	2023 (Aurrek.)
Araba	516	539	585	560	599	617	649	698	710	620	741	780	790
Bizkaia	634	656	634	653	641	664	703	756	777	661	828	828	867
Gipuzkoa	504	539	543	586	610	626	651	714	732	663	808	808	839
Euskadi	575	600	597	618	625	645	678	734	752	656	786	814	846

I. Eranskina

TEFFF - Arabako udalerriak

2022ko konturako ekarpenak eta likidazioa
eta 2023ko konturako ekarpenak, udalen arabera banakatuta.

* eurotan

UDALERRIA	2022ko behin betiko hasierako partaidetza osoa (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023rako behin-behineko hasierako partaidetzaren aurreikuspena (3)	aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
ALEGRÍA-DULANTZI	1.734.271	1.790.812	56.541	% 3,26	1.812.722	78.452	% 4,52
AMURRIO	6.483.793	6.697.081	213.288	% 3,29	6.779.806	296.013	% 4,57
AÑANA	113.411	116.460	3.049	% 2,69	117.639	4.228	% 3,73
ARAMAIO	913.327	942.775	29.448	% 3,22	954.179	40.853	% 4,47
ARMIÑÓN	101.523	104.179	2.656	% 2,62	105.214	3.691	% 3,64
ARRAIA-MAEZTU	307.244	316.690	9.446	% 3,07	320.366	13.122	% 4,27
ARRATZUA-UBARRUNDIA	590.819	609.624	18.804	% 3,18	616.917	26.098	% 4,42
ARTZINIEGA	1.108.521	1.144.411	35.890	% 3,24	1.158.315	49.793	% 4,49
ASPARRENA	983.527	1.015.292	31.765	% 3,23	1.027.606	44.079	% 4,48
AYALA/AIARA	1.250.069	1.290.631	40.561	% 3,24	1.306.424	56.354	% 4,51
BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	173.656	178.693	5.037	% 2,90	180.643	6.987	% 4,02
BARRUNDIA	344.805	355.490	10.685	% 3,10	359.651	14.847	% 4,31
BERANTEVILLA	196.409	202.196	5.788	% 2,95	204.451	8.042	% 4,09
BERNEDO	207.653	213.812	6.159	% 2,97	216.211	8.558	% 4,12
CAMPEZO/KANPEZU	500.151	515.963	15.812	% 3,16	522.114	21.963	% 4,39
ELBURGO/BURGELU	242.586	249.898	7.312	% 3,01	252.746	10.160	% 4,19
ELCIEGO	553.600	571.176	17.576	% 3,17	577.982	24.382	% 4,40
ELVILLAR/BILAR	199.803	205.703	5.900	% 2,95	207.987	8.185	% 4,10
IRUÑA OKA/IRUÑA DE OCA	1.554.530	1.605.140	50.609	% 3,26	1.624.842	70.312	% 4,52
IRURAZ-GAUNA	198.717	204.581	5.864	% 2,95	206.866	8.149	% 4,10
KRIPAN	116.515	119.666	3.151	% 2,70	120.886	4.371	% 3,75
KUARTANGO	182.822	188.161	5.339	% 2,92	190.240	7.418	% 4,06
LABASTIDA/BASTIDA	1.030.002	1.063.301	33.299	% 3,23	1.076.194	46.191	% 4,48
LAGRÁN	80.887	82.862	1.975	% 2,44	83.631	2.745	% 3,39
LAGUARDIA	956.134	986.994	30.861	% 3,23	998.953	42.820	% 4,48
LANCIEGO/LANTZIEGO	380.406	392.266	11.860	% 3,12	396.860	16.454	% 4,33
LANTARÓN	365.473	376.841	11.367	% 3,11	381.269	15.796	% 4,32
LAPUEBLA DE LABARCA	464.448	479.082	14.634	% 3,15	484.749	20.301	% 4,37
LEGUTIO	1.032.423	1.065.802	33.378	% 3,23	1.078.774	46.351	% 4,49
LEZA	155.025	159.447	4.422	% 2,85	161.156	6.132	% 3,96

UDALERRIA	2022ko behin betiko hasierako partaidetza osoa (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023rako behin-behineko hasierako partaidetzaren aurreikuspena (3)	aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
LAUDIO/LLODIO	12.821.278	13.243.720	422.442	% 3,29	13.407.577	586.299	% 4,57
MOREDA DE ÁLAVA/MOREDA ARABA	127.202	130.705	3.504	% 2,75	132.063	4.861	% 3,82
NAVARIDAS	131.490	135.135	3.645	% 2,77	136.547	5.057	% 3,85
OKONDO	716.597	739.552	22.955	% 3,20	748.447	31.850	% 4,44
OYÓN-OION	1.975.721	2.040.231	64.510	% 3,27	2.065.243	89.523	% 4,53
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	123.535	126.918	3.383	% 2,74	128.236	4.700	% 3,80
ERRIBERAGOITIA/RIBERA ALTA	324.944	334.974	10.030	% 3,09	338.878	13.934	% 4,29
RIBERA BAJA/ERRIBERA BEITIA	654.822	675.739	20.917	% 3,19	683.883	29.061	% 4,44
AGURAIN/SALVATIERRA	3.457.424	3.570.834	113.410	% 3,28	3.614.780	157.356	% 4,55
SAMANIEGO	189.342	194.897	5.555	% 2,93	197.047	7.705	% 4,07
SAN MILLÁN/DONEMILIAGA	286.092	294.839	8.748	% 3,06	298.247	12.156	% 4,25
URKABUSTAIZ	680.044	701.793	21.749	% 3,20	710.248	30.205	% 4,44
VALDEGOVÍA/GAUBEA	483.984	499.262	15.279	% 3,16	505.212	21.228	% 4,39
HARANA/VALLE DE ARANA	108.561	111.450	2.889	% 2,66	112.573	4.012	% 3,70
VILLABUENA DE ÁLAVA/ESKUERNAGA	175.624	180.725	5.102	% 2,90	182.701	7.077	% 4,03
VITORIA-GASTEIZ	189.312.405	192.405.582	3.093.177	% 1,63	201.734.798	12.422.393	% 6,56
YÉCORA/IEKORA	158.221	162.749	4.528	% 2,86	164.502	6.281	% 3,97
ZALDUONDO	122.361	125.705	3.344	% 2,73	126.999	4.639	% 3,79
ZAMBRANA	178.118	183.302	5.184	% 2,91	185.322	7.203	% 4,04
ZIGOITIA	919.815	949.477	29.662	% 3,22	961.005	41.190	% 4,48
ZUIA	1.293.297	1.335.285	41.988	% 3,25	1.351.573	58.277	% 4,51
TEFFFaren saldoogatik AFari emandako konpentsazioa	3.588.103	6.860.462	-	-	0	-	-100,00
GUZTIRA	240.351.527	248.248.361	7.896.834	% 3,29	251.311.276	10.959.749	% 4,56
AYTO VITORIA-GASTEIZko Udala: Gizarte ongizateko zerbitzuak	2.888.227	2.888.227	0	% 0,00	3.018.870	-	% 4,52

ITURRIA: Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseilua. Egilea bera.

II. Eranskina

UDALKUTXA - Bizkaiko udalerriak

2022ko konturako ekarpenak eta likidazioa
eta 2023ko konturako ekarpenak, udalen arabera banakatuta.

* eurotan

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
ABADIÑO	5.652.115	5.765.818	113.703	% 2,01	5.967.376	315.261	% 5,58
ABANTO y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENA	6.659.630	6.793.895	134.265	% 2,02	7.073.690	414.060	% 6,22
AJANGIZ	448.236	455.733	7.497	% 1,67	484.773	36.537	% 8,15
ALONSOTEGI	2.230.679	2.274.552	43.873	% 1,97	2.381.329	150.650	% 6,75
AMOREBIETA - ETXANO	13.304.033	13.573.907	269.874	% 2,03	14.264.819	960.786	% 7,22
AMOROTO	508.534	517.266	8.732	% 1,72	538.713	30.179	% 5,93
ARAKALDO	251.616	255.100	3.484	% 1,38	263.261	11.645	% 4,63
ARANTZAZU	384.762	390.961	6.199	% 1,61	401.704	16.942	% 4,40
AREATZA	1.027.379	1.046.694	19.315	% 1,88	1.151.338	123.959	% 12,07
ARRANKUDIAGA	879.730	896.036	16.306	% 1,85	964.099	84.369	% 9,59
ARRATZU	453.666	461.276	7.610	% 1,68	483.846	30.180	% 6,65
ARRIETA	554.486	564.154	9.668	% 1,74	588.334	33.848	% 6,10
ARRIGORRIAGA	8.464.501	8.635.602	171.101	% 2,02	9.002.658	538.157	% 6,36
ARTEA	695.659	708.206	12.547	% 1,80	754.263	58.604	% 8,42
ARTZENTALES	806.133	820.945	14.812	% 1,84	865.545	59.412	% 7,37
ATXONDO	1.080.527	1.100.929	20.402	% 1,89	1.169.741	89.214	% 8,26
AULESTI	719.644	732.687	13.043	% 1,81	762.144	42.500	% 5,91
BAKIO	2.086.251	2.127.177	40.926	% 1,96	2.319.700	233.449	% 11,19
BALMASEDA	5.515.013	5.625.917	110.904	% 2,01	5.872.256	357.243	% 6,48
BARAKALDO	69.514.667	70.931.774	1.417.107	% 2,04	74.275.452	4.760.785	% 6,85
BARRIKA	1.099.778	1.120.570	20.792	% 1,89	1.180.635	80.857	% 7,35
BASAURI	28.710.392	29.294.701	584.309	% 2,04	30.493.700	1.783.308	% 6,21
BEDIA	869.499	885.594	16.095	% 1,85	925.643	56.144	% 6,46
BERANGO	4.980.916	5.080.919	100.003	% 2,01	5.334.975	354.059	% 7,11
BERMEO	11.569.888	11.804.368	234.480	% 2,03	12.331.930	762.042	% 6,59
BERRIATUA	1.044.569	1.064.237	19.668	% 1,88	1.101.207	56.638	% 5,42
BERRIZ	3.304.818	3.370.614	65.796	% 1,99	3.496.166	191.348	% 5,79
BILBAO	354.904.669	361.948.306	7.043.637	% 1,98	378.959.104	24.054.435	% 6,78
BUSTURIA	1.270.556	1.283.878	13.322	% 1,05	1.348.714	78.158	% 6,15
DERIO	4.819.736	4.916.449	96.713	% 2,01	5.190.931	371.195	% 7,70
DIMA	1.306.106	1.331.120	25.014	% 1,92	1.397.178	91.072	% 6,97

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
DURANGO	20.311.482	20.724.375	412.893	% 2,03	21.663.457	1.351.975	% 6,66
EA	755.405	769.172	13.767	% 1,82	800.390	44.985	% 5,96
ELANTXOBE	325.833	330.829	4.996	% 1,53	342.480	16.647	% 5,11
ELORRIO	5.232.980	5.338.128	105.148	% 2,01	5.505.628	272.648	% 5,21
ERANDIO	16.941.203	17.285.310	344.107	% 2,03	18.087.302	1.146.099	% 6,77
EREÑO	422.132	429.104	6.972	% 1,65	447.213	25.081	% 5,94
ERMUA	11.524.634	11.758.190	233.556	% 2,03	12.253.271	728.637	% 6,32
ERRIGOITI	541.062	550.459	9.397	% 1,74	573.500	32.438	% 6,00
ETXEBARRI	8.267.466	8.434.546	167.080	% 2,02	8.803.911	536.445	% 6,49
ETXEBARRIA	743.031	756.547	13.516	% 1,82	795.172	52.141	% 7,02
FORUA	714.818	727.754	12.936	% 1,81	760.258	45.440	% 6,36
FRUIZ	480.881	489.042	8.161	% 1,70	507.184	26.303	% 5,47
GALDAKAO	20.531.984	20.949.377	417.393	% 2,03	21.898.525	1.366.541	% 6,66
GALDAMES	852.510	868.269	15.759	% 1,85	909.110	56.600	% 6,64
GAMIZ - FIKA	1.017.418	1.036.531	19.113	% 1,88	1.095.869	78.451	% 7,71
GARAI	380.387	386.501	6.114	% 1,61	403.042	22.655	% 5,96
GATIKA	1.282.886	1.307.416	24.530	% 1,91	1.381.836	98.950	% 7,71
GAUTEGIZ ARTEAGA	708.972	721.791	12.819	% 1,81	764.204	55.232	% 7,79
GERNIKA - LUMO	12.018.208	12.261.838	243.630	% 2,03	12.841.266	823.058	% 6,85
GETXO	52.903.839	53.981.926	1.078.087	% 2,04	56.061.522	3.157.683	% 5,97
GIZABURUAGA	337.504	342.746	5.242	% 1,55	357.095	19.591	% 5,80
GORDEXOLA	1.360.186	1.386.298	26.112	% 1,92	1.472.304	112.118	% 8,24
GORLIZ	4.377.627	4.465.317	87.690	% 2,00	4.781.822	404.195	% 9,23
GÜEÑES	4.751.788	4.847.116	95.328	% 2,01	5.079.092	327.304	% 6,89
IBARRANGELU	712.838	725.738	12.900	% 1,81	789.261	76.423	% 10,72
IGORRE	3.263.395	3.328.344	64.949	% 1,99	3.445.215	181.820	% 5,57
ISPASTER	751.708	765.403	13.695	% 1,82	811.890	60.182	% 8,01
IURRETA	2.648.163	2.700.557	52.394	% 1,98	2.914.887	266.724	% 10,07
IZURTZA	315.126	319.907	4.781	% 1,52	327.882	12.756	% 4,05
KARRANTZA HARANA/VALLE de CARRANZA	2.269.792	2.314.476	44.684	% 1,97	2.407.840	138.048	% 6,08
KORTEZUBI	479.475	487.613	8.138	% 1,70	507.128	27.653	% 5,77

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
LANESTOSA	265.598	269.364	3.766	% 1,42	283.444	17.846	% 6,72
LARRABETZU	1.622.336	1.653.794	31.458	% 1,94	1.748.254	125.918	% 7,76
LAUKIZ	965.500	983.551	18.051	% 1,87	1.031.922	66.422	% 6,88
LEIOA	21.840.942	22.285.049	444.107	% 2,03	23.508.623	1.667.681	% 7,64
LEKEITIO	5.131.656	5.234.735	103.079	% 2,01	5.448.884	317.228	% 6,18
LEMOA	2.632.071	2.684.135	52.064	% 1,98	2.800.654	168.583	% 6,40
LEMOIZ	1.029.142	1.048.495	19.353	% 1,88	1.137.841	108.699	% 10,56
LEZAMA	1.833.290	1.869.053	35.763	% 1,95	1.949.921	116.631	% 6,36
LOIU	1.643.940	1.675.838	31.898	% 1,94	1.747.042	103.102	% 6,27
MALLABIA	1.016.402	1.035.496	19.094	% 1,88	1.099.089	82.687	% 8,14
MAÑARIA	573.824	583.890	10.066	% 1,75	608.186	34.362	% 5,99
MARKINA - XEMEIN	3.644.443	3.717.171	72.728	% 2,00	3.898.650	254.207	% 6,98
MARURI - JATABE	791.451	805.953	14.502	% 1,83	850.371	58.920	% 7,44
MENDATA	587.537	597.889	10.352	% 1,76	625.609	38.072	% 6,48
MENDEXA	496.424	504.905	8.481	% 1,71	508.119	11.695	% 2,36
MEÑAKA	646.010	657.544	11.534	% 1,79	684.300	38.290	% 5,93
MORGA	490.354	498.716	8.362	% 1,71	520.930	30.576	% 6,24
MUNDAKA	1.408.701	1.435.797	27.096	% 1,92	1.521.005	112.304	% 7,97
MUNGIA	12.461.928	12.714.615	252.687	% 2,03	13.309.586	847.658	% 6,80
MUNITIBAR - ARBATZEGI GERRIKAITZ	643.634	655.129	11.495	% 1,79	684.833	41.199	% 6,40
MURUETA	360.288	365.990	5.702	% 1,58	382.808	22.520	% 6,25
MUSKIZ	5.415.134	5.524.000	108.866	% 2,01	5.755.369	340.235	% 6,28
MUXIKA	1.245.385	1.269.157	23.772	% 1,91	1.331.450	86.065	% 6,91
NABARNIZ	445.481	452.931	7.450	% 1,67	470.217	24.736	% 5,55
ONDARROA	5.997.977	6.118.737	120.760	% 2,01	6.358.358	360.381	% 6,01
OROZKO	2.080.784	2.121.607	40.823	% 1,96	2.218.548	137.764	% 6,62
ORTUELLA	5.662.748	5.776.667	113.919	% 2,01	6.063.578	400.830	% 7,08
OTXANDIO	1.107.144	1.128.087	20.943	% 1,89	1.212.157	105.013	% 9,49
PLENTZIA	3.183.993	3.247.321	63.328	% 1,99	3.433.091	249.098	% 7,82
PORTUGALETE	31.201.378	31.836.529	635.151	% 2,04	33.048.770	1.847.392	% 5,92
SANTURTZI	31.369.419	32.007.999	638.580	% 2,04	33.549.179	2.179.760	% 6,95
SESTAO	19.043.252	19.430.261	387.009	% 2,03	20.401.573	1.358.321	% 7,13
SONDIKA	3.251.531	3.316.238	64.707	% 1,99	3.471.637	220.106	% 6,77
SOPELA	9.980.249	10.182.285	202.036	% 2,02	10.813.911	833.662	% 8,35
SOPUERTA	1.875.054	1.911.671	36.617	% 1,95	2.036.319	161.265	% 8,60
SUKARRIETA	373.453	390.044	16.591	% 4,44	406.583	33.130	% 8,87
TRUCIOS - TURTZIOZ	712.271	725.170	12.899	% 1,81	767.148	54.877	% 7,70
UBIDE	260.758	264.429	3.671	% 1,41	272.850	12.092	% 4,64
UGAO - MIRABALLES	2.996.540	3.056.043	59.503	% 1,99	3.189.484	192.944	% 6,44

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
URDULIZ	3.445.843	3.514.516	68.673	% 1,99	3.919.908	474.065	% 13,76
URDUÑA - ORDUÑA	2.998.809	3.058.359	59.550	% 1,99	3.202.916	204.107	% 6,81
VALLE DE TRÁPAGA - TRAPAGARAN	8.041.247	8.203.710	162.463	% 2,02	8.594.958	553.711	% 6,89
ZALDIBAR	2.263.014	2.307.547	44.533	% 1,97	2.402.092	139.078	% 6,15
ZALLA	5.980.653	6.101.060	120.407	% 2,01	6.356.442	375.789	% 6,28
ZAMUDIO	2.414.840	2.462.472	47.632	% 1,97	2.566.475	151.635	% 6,28
ZARATAMO	1.231.126	1.254.599	23.473	% 1,91	1.319.066	87.940	% 7,14
ZEANURI	1.238.691	1.262.332	23.641	% 1,91	1.314.238	75.547	% 6,10
ZEBERIO	1.045.859	1.065.562	19.703	% 1,88	1.131.474	85.615	% 8,19
ZIERBENA	1.156.720	1.178.675	21.955	% 1,90	1.283.345	126.625	% 10,95
ZIORTZA-BOLIBAR	540.583	549.974	9.391	% 1,74	576.542	35.959	% 6,65
GUZTIRA	928.988.327	947.565.096	18.576.769	% 2,00	991.952.529	62.964.202	% 6,78

ITURRIA: Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua. Norberak egina.

III. Eranskina

UFFF - Gipuzkoako udalerriak

2022ko konturako ekarpenak eta likidazioa
eta 2023ko konturako ekarpenak, udalen arabera banakatuta.

* eurotan

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
ABALTZISKETA	311.712	321.819	10.107	% 3,24	322.807	11.095	% 3,56
ADUNA	422.361	436.055	13.694	% 3,24	460.895	38.534	% 9,12
AIA	1.551.657	1.601.966	50.309	% 3,24	1.657.605	105.948	% 6,83
AIZARNAZABAL	635.094	655.685	20.591	% 3,24	691.081	55.987	% 8,82
ALBIZTUR	299.271	308.974	9.703	% 3,24	327.314	28.043	% 9,37
ALEGIA	1.347.903	1.391.606	43.703	% 3,24	1.443.447	95.544	% 7,09
ALKIZA	352.787	364.225	11.438	% 3,24	365.396	12.609	% 3,57
ALTZAGA	218.972	226.071	7.099	% 3,24	228.076	9.104	% 4,16
ALTZO	407.239	420.442	13.203	% 3,24	423.121	15.882	% 3,90
AMEZKETA	739.059	763.021	23.962	% 3,24	798.451	59.392	% 8,04
ANDOAIN	11.153.899	11.515.539	361.640	% 3,24	11.961.168	807.269	% 7,24
ANOETA	1.589.373	1.640.905	51.532	% 3,24	1.710.078	120.705	% 7,59
ANTZUOLA	1.597.372	1.649.163	51.791	% 3,24	1.700.818	103.446	% 6,48
ARAMA	223.525	230.773	7.248	% 3,24	245.296	21.771	% 9,74
ARETXABAETA	5.419.516	5.595.231	175.715	% 3,24	5.832.628	413.112	% 7,62
ARRASATE / MONDRAGON	16.851.604	17.397.979	546.375	% 3,24	17.910.912	1.059.308	% 6,29
ASTEASU	1.191.482	1.230.113	38.631	% 3,24	1.276.796	85.314	% 7,16
ASTIGARRAGA	5.320.727	5.493.239	172.512	% 3,24	5.826.153	505.426	% 9,50
ATAUN	1.278.842	1.320.306	41.464	% 3,24	1.375.050	96.208	% 7,52
AZKOITIA	8.885.392	9.173.480	288.088	% 3,24	9.562.930	677.538	% 7,63
AZPEITIA	11.500.414	11.873.289	372.875	% 3,24	12.482.858	982.444	% 8,54
BALIARRAIN	199.192	205.651	6.459	% 3,24	207.630	8.438	% 4,24
BEASAIN	10.568.137	10.910.784	342.647	% 3,24	11.341.908	773.771	% 7,32
BEIZAMA	193.580	199.856	6.276	% 3,24	201.129	7.549	% 3,90
BELAUNTZA	257.747	266.104	8.357	% 3,24	278.881	21.134	% 8,20
BERASTEGI	833.701	860.732	27.031	% 3,24	912.813	79.112	% 9,49
BERGARA	11.170.156	11.532.323	362.167	% 3,24	11.962.243	792.087	% 7,09
BERROBI	496.457	512.554	16.097	% 3,24	544.010	47.553	% 9,58
BIDANIA-GOITZ	459.214	474.103	14.889	% 3,24	497.132	37.918	% 8,26
DEBA	4.200.120	4.336.299	136.179	% 3,24	4.497.516	297.396	% 7,08
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN	154.570.618	159.582.220	5.011.602	% 3,24	165.931.911	11.361.293	% 7,35

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
EIBAR	21.257.411	21.946.634	689.223	% 3,24	22.534.445	1.277.034	% 6,01
ELDUAIN	255.167	263.440	8.273	% 3,24	269.632	14.465	% 5,67
ELGETA	865.204	893.256	28.052	% 3,24	926.523	61.319	% 7,09
ELGOIBAR	8.866.177	9.153.642	287.465	% 3,24	9.406.407	540.230	% 6,09
ERRETERIA	30.191.921	31.170.826	978.905	% 3,24	32.141.453	1.949.532	% 6,46
ERREZIL	498.976	515.155	16.179	% 3,24	529.078	30.102	% 6,03
ESKORIATZA	3.143.136	3.245.045	101.909	% 3,24	3.400.848	257.712	% 8,20
EZKIO-ITSASO	502.493	518.785	16.292	% 3,24	551.228	48.735	% 9,70
GABIRIA	432.751	446.782	14.031	% 3,24	466.797	34.046	% 7,87
GAINTZA	175.604	181.297	5.693	% 3,24	186.679	11.075	% 6,31
GAZTELU	200.135	206.624	6.489	% 3,24	223.817	23.682	% 11,83
GETARIA	2.123.416	2.192.263	68.847	% 3,24	2.279.866	156.450	% 7,37
HERNANI	15.602.477	16.108.352	505.875	% 3,24	16.731.806	1.129.329	% 7,24
HERNIALDE	301.474	311.249	9.775	% 3,24	333.491	32.017	% 10,62
HONDARRIBIA	12.844.018	13.260.456	416.438	% 3,24	13.824.108	980.090	% 7,63
IBARRA	3.261.059	3.366.791	105.732	% 3,24	3.474.620	213.561	% 6,55
IDIAZABAL	1.742.344	1.798.835	56.491	% 3,24	1.859.863	117.519	% 6,74
IKAZTEGIETA	425.944	439.754	13.810	% 3,24	458.232	32.288	% 7,58
IRUN	48.103.669	49.663.320	1.559.651	% 3,24	51.619.980	3.516.311	% 7,31
IRURA	1.407.900	1.453.548	45.648	% 3,24	1.534.722	126.822	% 9,01
ITSASONDO	542.903	560.505	17.602	% 3,24	571.928	29.025	% 5,35
LARRAUL	266.537	275.178	8.641	% 3,24	282.695	16.158	% 6,06
LASARTE-ORIA	14.130.748	14.588.905	458.157	% 3,24	15.428.796	1.298.048	% 9,19
LAZKAO	4.407.820	4.550.733	142.913	% 3,24	4.869.526	461.706	% 10,47
LEABURU	363.019	374.789	11.770	% 3,24	380.762	17.743	% 4,89
LEGAZPI	6.334.406	6.539.785	205.379	% 3,24	6.835.139	500.733	% 7,90
LEGORRETA	1.082.589	1.117.689	35.100	% 3,24	1.179.008	96.419	% 8,91
LEINTZ-GATZAGA	236.105	243.760	7.655	% 3,24	247.700	11.595	% 4,91
LEZO	4.689.435	4.841.479	152.044	% 3,24	5.003.931	314.496	% 6,71
LIZARTZA	501.591	517.854	16.263	% 3,24	543.655	42.064	% 8,39
MENDARO	1.507.400	1.556.274	48.874	% 3,24	1.625.254	117.854	% 7,82

UDALERRIA	2022ko konturako ekarpenak (1)	2022ko aurrelikidazioa (2)	Aldea (2) - (1)	% (2)/(1)	2023ko konturako ekarpenak (3)	Aldea (3)-(1)	% (3)/(1)
MUTILOA	265.234	273.833	8.599	% 3,24	280.583	15.349	% 5,79
MUTRIKU	4.100.310	4.233.254	132.944	% 3,24	4.363.285	262.975	% 6,41
OIARTZUN	7.866.451	8.121.502	255.051	% 3,24	8.460.597	594.146	% 7,55
OLABERRIA	774.753	799.873	25.120	% 3,24	815.630	40.877	% 5,28
OÑATI	8.796.428	9.081.632	285.204	% 3,24	9.394.191	597.763	% 6,80
ORDIZIA	7.979.043	8.237.745	258.702	% 3,24	8.522.243	543.200	% 6,81
ORENDAIN	243.356	251.246	7.890	% 3,24	257.337	13.981	% 5,75
OREXA	172.838	178.442	5.604	% 3,24	179.467	6.629	% 3,84
ORIO	4.619.176	4.768.942	149.766	% 3,24	4.966.069	346.893	% 7,51
ORMAIZTEGI	960.279	991.414	31.135	% 3,24	1.025.619	65.340	% 6,80
PASAIA	12.260.798	12.658.326	397.528	% 3,24	13.013.365	752.567	% 6,14
SEGURA	1.129.942	1.166.578	36.636	% 3,24	1.187.172	57.230	% 5,06
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	3.007.027	3.104.523	97.496	% 3,24	3.216.873	209.846	% 6,98
TOLOSA	15.127.562	15.618.039	490.477	% 3,24	16.236.528	1.108.966	% 7,33
URNIETA	4.745.049	4.898.896	153.847	% 3,24	5.099.817	354.768	% 7,48
URRETXU	5.129.756	5.296.077	166.321	% 3,24	5.508.690	378.934	% 7,39
USURBIL	4.701.249	4.853.676	152.427	% 3,24	5.033.644	332.395	% 7,07
VILLABONA	4.488.650	4.634.184	145.534	% 3,24	4.804.427	315.777	% 7,04
ZALDIBIA	1.241.903	1.282.169	40.266	% 3,24	1.333.819	91.916	% 7,40
ZARAUTZ	17.664.311	18.237.036	572.725	% 3,24	18.884.335	1.220.024	% 6,91
ZEGAMA	1.163.901	1.201.638	37.737	% 3,24	1.263.911	100.010	% 8,59
ZERAIN	278.033	287.048	9.015	% 3,24	303.781	25.748	% 9,26
ZESTOA	2.891.126	2.984.864	93.738	% 3,24	3.091.846	200.720	% 6,94
ZIZURKIL	2.292.675	2.367.010	74.335	% 3,24	2.444.673	151.998	% 6,63
ZUMAIA	7.635.081	7.882.632	247.551	% 3,24	8.226.708	591.627	% 7,75
ZUMARRAGA	7.408.165	7.648.357	240.192	% 3,24	7.860.860	452.695	% 6,11
GUZTIRA	567.454.048,00	585.852.448,00	18.398.400,00	% 3,24	608.475.512,00	41.021.464	% 7,23

FUENTE: Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa. Elaboración propia.

Udal Finantzaketa

Udalen partaidetza zerga itunduetan
2022-2023

